

Vitoria-Gasteiz, 2021ko maiatzaren 24a.

Vitoria-Gasteiz, 24 de mayo de 2021.

BILDU DIRA

SE REUNEN



Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusi Antonio Aiz Salazar jauna, Gadakaoko Alkate Udaltzaria Iñigo Hernando Arriandiaga jauna eta Zarautzoko Alkate Udaltzaria Alberto Ugarriza Urrutikoetxea jauna.

El Sr. D. Antonio Aiz Salazar, Director General de la Agencia Vasca del Agua, el Sr. D. Iñigo Hernando Arriandiaga, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Galdakao, y el Sr. D. Alberto Ugarriza Urrutikoetxea, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Zarautz.

ESKU HARTU DUTE

INTERVIENEN



Lehenak, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari den aldetik eta Agentziaren Estatutuen 7.2.g) artikulua ematen dizkion eskumenak betez.

El primero de ellos en su calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g) de sus Estatutos.

Bigarrena eta hirugarrena, Alkate Udaltzaria, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikulua Udala ordezkatzeko ematen dion lege-ahalmena betez

El segundo y el tercero, en ejercicio de la capacidad legal de representación de su Ayuntamiento que le confiere el artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

Parte hartzen duten aldeek LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzeko beharrezko


Las partes intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para suscribir

legezko gaitasuna onartzen diote elkarri eta, horretarako

la presente MODIFICACIÓN DE CONVENIO DE COLABORACIÓN, y a tal efecto

HONAKOA AZALTZEN DUTE

EXPONEN



LEHENENGOA.- 2019ko maiatzaren 16an Uraren Euskal Agentziak eta Galdakaoko eta Zaratamoko udalek lankidetzahitzarmen bat sinatu zuten "Nerbio-Ibaizabal ibaia bideratzeko proiektua. 3. Fasea. Bengoetxe-Plazakoetxe (Bizkaia) Zatia" delakoan aurreikusitako lanak gauzatu eta finantzatzeko xedearekin.

PRIMERO.- Que con fecha 16 de mayo de 2019 la Agencia Vasca del Agua y los Ayuntamientos de Galdakao y Zaratamo suscribieron un convenio de colaboración para la ejecución y financiación de las obras incluidas en el «Proyecto de encauzamiento del río Nervión-Ibaizabal. Fase 3. Tramo. Bengoetxe-Plazakoetxe (Bizkaia)»



BIGARRENA.- Aipatu hitzarmenaren eskutik, aldeek ondoko konpromisoak hartu zituzten, besteak beste:

SEGUNDO.- En virtud del citado convenio las partes asumieron, entre otros, los siguientes compromisos:

a) Agentziak, aipatu proiektuan aurreikusitako obrak kontratatzea eta finantzatzea.

a) La Agencia, contratar y financiar las obras incluidas en el citado proyecto.

b) Galdakaoko Udalak, bere aldetik, aipatu obrak gauzatzeko beharrezkoak diren bere udalerriko lurzati guztiak bere karguz eskuratzea, bai eta Bengoetxe zubitik ibaian gora dauden obren ondorioz kalteturiko bere udalerriko eraikinak eraistea ere.

b) El Ayuntamiento de Galdakao, por su parte, obtener a su cargo los terrenos, pertenecientes a su término municipal, necesarios para la ejecución de las referidas obras, así como demoler las edificaciones afectadas aguas arriba del puente de Bengoetxe y situadas en su municipio.

c) Azkenik, Zaratamoko Udalak, proiektatu diren obren eragina pairatuko duten bere udalerriko lurzatiak eskuratzea ere (Uraren

c) Por último, el ayuntamiento de Zaratamo, obtener igualmente los terrenos afectados por las obras proyectadas, incluidos dentro

Euskal Agentziaren babes ekonomikoarekin).

de su término municipal (con el auxilio económico de la Agencia Vasca del Agua).

HIRUGARRENA.- Galdakaoko Udalak, obretarako beharrezkoak diren lurzatiak Agentziaren esku utzi baditu ere, oraindik ez ditu bertan dauden eraikinak eraitsi: Santa Barbara frontoia eta Ibaizabal, 35D helbidean dagoen nabea hain zuzen ere.

TERCERO.- El Ayuntamiento de Galdakao, si bien ha puesto a disposición de la Agencia los terrenos afectados por las obras, a día de hoy no ha podido llevar a cabo la demolición de las edificaciones existentes, concretamente el frontón de Santa Bárbara y la nave situada en la calle Ibaizabal nº35D.



LAUGARRENA.- Uraren Euskal Agentziak, bere aldetik, obrak esleitu ditu dagoeneko eta une honetan aipatu obrak gauzatze-fasean daude. Horrenbestez, ezin da gehiago atzeratu aipatu eraikinen eraistea.

CUARTO.- La Agencia Vasca del Agua, por su parte, ha adjudicado ya las obras, encontrándose las mismas en ejecución en este momento, por lo que resulta inaplazable acometer el derribo de las edificaciones.



BOSTGARRENA.- Eraitsi behar diren eraikinak Ibaizabal ibaia bideratzeko (hitzarmenaren xedea) obrak egun hartzen dituzten lurzatietan daudela aintzat hartuz, Galdakaoko Udalak zein Agentziak uste dute, eta eraginkortasun arrazoiengatik gehienbat, egokiena dela eraiste-lan horiek uholdeen kontrako babesa eraikiko duen enpresa esleipendunak egitea, bi esku-hartze horiek hobeto koordinatu ahal izateko.

QUINTO.- Teniendo en cuenta que las edificaciones a demoler se localizan dentro de los terrenos donde se están ejecutando las obras de acondicionamiento del río Ibaizabal (objeto del convenio), tanto el Ayuntamiento de Galdakao como la Agencia consideran más conveniente, por razones de eficacia, que las obras de derribo sean ejecutadas por la empresa adjudicataria de la obra de defensa contra inundaciones, de manera que se puedan coordinar mejor ambas actuaciones.

SEIGARRENA.- Horrexegatik guztiagatik, hitzarmena sinatu duten aldeek aipatua

SEXTO.- Por todo ello, las partes firmantes del convenio proceden a formalizar la

ALDATU nahi dute eta, horretarako, ondoko KLAUSULETAN jasotako aldaketak sartu nahi dituzte:

KLAUSULAK


LEHENENGOA.- 2019ko maiatzaren 16ko hitzarmeneko hirugarren klausulako (Uraren Euskal Agentziaren konpromisoak) b) eta c) idatz-zatiak honela geratuko dira:



"b) Aipaturiko proiektu horretan jasotako lanak kontratatzea. Bai eta Santa Barbara frontoia eta Ibaizabal, 35D helbidean dagoen nabea eraisteko proiektuari dagozkion obrak ere.



c) a) atalean aipaturiko lanak teknikoki zuzendu eta ikuskatzea."



BIGARRENA.- 2019ko maiatzaren 16ko hitzarmeneko laugarren klausula horrela geratuko da:

"LAUGARRENA.- GALDAKAOKO UDALAREN BETEBEHARRAK.

Galdakao Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

presente MODIFICACIÓN del mismo, introduciendo en el mismo los cambios que se producen en los compromisos adquiridos, con arreglo a las siguientes:

CLÁUSULAS

PRIMERA.- Los apartados b) y c) de la cláusula tercera (compromisos de la Agencia Vasca del Agua) del convenio de 16 de mayo de 2019 quedan redactados como sigue:

"b) Contratar las obras incluidas en dicho proyecto, así como las correspondientes a los proyectos de demolición del frontón de Santa Bárbara y de la nave situada en la calle Ibaizabal nº35D.

c) Dirigir e inspeccionar técnicamente las obras referidas en el apartado a)."

SEGUNDA.- La cláusula cuarta del convenio de 16 de mayo de 2019 queda redactada como sigue:

"CUARTA.- COMPROMISOS DEL AYUNTAMIENTO DE GALDAKAO.

El Ayuntamiento de Galdakao se compromete a:

a) Obtener a su cargo aquellos terrenos, pertenecientes a su término municipal,

a) Proiektuko lan hidraulikoen behin betiko eragina edo behin-behinekoa jasoko duten lurrak eskuratzea.

b) Santa Barbara frontoia eta Ibaizabal, 35D helbidean dagoen nabea eraisteko proiektuak idaztea eta aurkeztea.

c) Eraiste horiek teknikoki zuzendu eta ikuskatzea.



d) Finantzatzea, eta Uraren Euskal Agentziari ordaintzea, aipatu eraisteak gauzatzeko kostuaren zenbatekoa.



Kontzeptu horri lotuta, Galdakaoko Udalak ondoko zenbatekoa ordaintzeko konpromisoa hartzen du: EHUNDA BERROGEITA HAMASEI MILA, LAUREHUN ETA HIRUROGEITA BI EURO ETA LAUROGEITA HAMASEI ZENTIMO (156.462,96). 2021eko ekitaldirako ordainketa-kreditu bati dagozkio eta bere aurrekontu-bitartekoen kargura finantzatuko dira.



Udalak ordainketa egin aurretik, eraistelanei dagokien zenbatekoaren egiaztagiria bidali beharko dio Agentziak. Hori egiten den unetik bertatik, zehaztutako zenbatekoa xede horretarako adierazi zaion kontuan

que resulten afectados por las obras proyectadas, tanto de forma temporal como definitiva.

b) Redactar y aportar los proyectos de demolición del frontón de Santa Bárbara y de la nave situada en la calle Ibaizabal nº 35D.

c) Dirigir e inspeccionar técnicamente las mencionadas demoliciones.

d) Financiar y abonar a la Agencia Vasca del Agua el importe a que ascienda el coste de ejecución de las citadas demoliciones.

El importe previsto que compromete el Ayuntamiento de Galdakao por este concepto es de CIENTO CINCUENTA Y SEIS MIL CUATROCIENTOS SESENTA Y DOS EUROS CON NOVENTA Y SEIS CENTIMOS (156.462,96) correspondientes a un crédito de pago para el ejercicio 2021, que se financiarán con cargo a sus recursos presupuestarios.

El abono por parte del Ayuntamiento se realizará previa remisión por la Agencia de la certificación por el importe correspondiente a las obras de demolición, quedando obligado aquél desde ese momento al ingreso de la

ordaintzera behartuta geratuko da Udala.

e) a) idtz-zatian aipaturiko lur guztiak Uraren Euskal Agentziaren eskura jartze.

f) Proiektuan jaso ez diren eragindako zerbitzuak berrezartzea, eta bere udal-mugartean egingo diren hitzarmen honen helburuko jarduerak kontratatu eta gauzatzen hasi aurretik, behar diren lizentziak, baimenak eta kontratutik kanpoko gainerako administrazio-izapideak lortzea.

g) Hiri-drainatzeko azpiegitura gauzatuak Uraren Euskal Agentziatik jasotzea, Agentziak amaitu eta jaso ondoren.

Lan horiek udal-jabetzakoak izango dira, eta Udala behartuta egongo da azpiegiturok kudeatzera eta behar bezala zaintzera. Horretarako, Udalak aurrekontuak prestatu beharko ditu, bai eta behar diren neurri guztiak ere hartu.

h) Mantentze- eta garbiketa-lanak aldizka egitea, ematen diren azpiegitura hidraulikoen funtzionamendua (urak hustea) behar bezala zaintzeko.”

cantidad indicada en la cuenta que al efecto se establezca.

e) Poner a disposición de la Agencia Vasca del Agua los terrenos citados en el apartado a).

f) Reponer los servicios afectados no contemplados en el proyecto, así como obtener las licencias, autorizaciones y los demás trámites administrativos no contractuales previos y necesarios para la contratación y ejecución de las actuaciones objeto del convenio que radiquen en su término municipal.

g) Recibir de la Agencia Vasca del Agua el puente de Bengoetxe, una vez terminadas las obras y recibidas por aquélla.

El puente, con la urbanización adyacente quedará en propiedad municipal, obligándose el Ayuntamiento de Galdakao a su gestión y mantenimiento adecuados, comprometiéndose a realizar las previsiones presupuestarias y a adoptar las demás medidas precisas para tal fin.

h) Realizar con carácter periódico las tareas de mantenimiento y limpieza que resulten adecuadas para conservar la capacidad de desagüe de las

infraestructuras hidráulicas que se entregan.”

HIRUGARRENA.- Aldaketa honen aurka ez doazen 2019ko maiatzaren 16ko lankidetzaz hitzarmeneko klausula guztiak osotasunean mantenduko dira indarrean.

TERCERA.- En tanto no contravenga lo dispuesto en la presente modificación continuará siendo de total aplicación el clausulado del convenio de 16 de mayo de 2019.

Eta horren guztiaren ondorioz eta horrekin bat, aldeek idazpuruan adierazitako leku eta egunean sinatu dute hitzarmena bina aletan.

Y en virtud y de conformidad con lo establecido, firman los comparecientes, por triplicado, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

**EL DIRECTOR GENERAL DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA /
URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ZUZENDARI NAGUSIA**



ANTONIO AIZ SALAZAR

**GALDAGAOKO ALKATE UDALBURUA /
ALCALDE-PRESIDENTE DEL
AYUNTAMIENTO DE GALDAKAO**



IÑIGO HERNANDO ARRIANDIAGA

**ZARATAMOKO ALKATE UDALBURUA /
ALCALDE-PRESIDENTE DEL
AYUNTAMIENTO DE ZARATAMO**



ALBERTO UGARRIZA URRUTIKOETXEA

